

Bezeroen, hau da, itsuen ongizatea da gure enpresari ardura zaion gauzarik garrantzitsuena. Horregatik, bezero horiek zaintzea eta beraien beharraz entzutea eta behar horiei erantzun bat ematea ezinbestekotzak jotzen dugu.

Bezeroak erakartzeko publizitatea erabili dugu. ONCEren laguntza izanGO dugu horretarako, haien bezeroei gure robotaren publizitatea egin digutelako. Baita, lasterketa benefikoaren bitartez, bezero gehiago lortu ditugu.

Harreman pertsonala sustatuko dugu gure dendetara etortzen diren bezeroekin. Webgunean bezeroekin kontaktuan jartzeko erantzungailu automatikoa erabiltzen dugu. Telefono eta whatsapp ere daukagun, eta horien bitartzen harreman pertsonala daukagu.

Bezeroekin fideltasuna bermatzeko ondorengo estrategiak martxan jarriko ditugu:

- Bezeroei asebetetze inkesta bat pasako diegu beraien nahiak eta balorazioa ezagutu eta kontutan hartzeko.
- Lehenengo bi urteetan Robotaren mantenimendu lanak dohain egingo dizkiegu.
- Mantenimendu hori egiteko etxez-etxeko zerbitzua eskeintzen da.
- Robot bakoitzak, gainera, bi urteko bermea izango du.
- Epeka ordaintzeko aukera emango diegu, interesik gabe.
- Robota erabiltzeko formakuntza saioak eskeiniko dizkiegu eta bideo tutorial bat prestatuko dugu beraientzat.